

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

Kultura Zerbitzua

2025eko Vitoria-Gasteizko Andre Maria Zuriaren jaiak iragartzeko kartel lehiaketaren oinarriak

Oinarriak

Lehena. Deialdiaren xedea

2025eko Vitoria-Gasteizko Andre Maria Zuriaren jaiak iragartzeko kartel ofiziala hautatzea izango da lehiaketaren xedea.

Lehiaketa baliatuko da prozedura gisa.

Bigarrena. Parte hartzaileek bete beharreko betekizunak

Nornahik parte hartu ahalko du lehiaketan, edonongoa delarik eta nonahi bizi delarik ere.

Hirugarrena. Hautagaitzak aurkeztea

Eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahalko dira, herritarrei laguntzeko bulegoetan, edo Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan, helbide honetan: <https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org>. Orobat aurkeztu ahalko dira legez aurreikusitako gainerako moduetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Laugarrena. Hautatzeko prozesua

a) Lehen fasea. Hautagaitzak dossier bidez aurkeztea.

Hautagai bakoitzak dossier elektronikoa bakarrik erregistratu du udalaren egoitza elektronikoan, PDF formatuan, gehienez 10 MB-koa (pantailan ikusteko bertsio digitala), oinarri hauen I. eranskinaren arabera. Dossier horrek 3 eta 5 ilustrazio edo diseinu artean izan beharko ditu barne, eta horietatik gutxienez 2 kartelak izango dira.

Artxiboa izendatzeko eredu honi jarraituko zaio: DOSIERRA-(izenordea jarri).pdf

Adibidez: DOSIERRA-Jaiak.pdf.

Kartelak aurreko lanetan oinarritutakoak edo simulazioak izan daitezke.

Azken artearen kalitatea eta hautagaiaren estiloa edo ilustrazio- eta/edo diseinu-lanean dituen gaitasunak baloratu ahal izatea da helburua.

Lanak sinadurarik gabe agertu beharko dira dossierrean. Hautagaia identifikatzeko aukera ematen duen edozein sinadura edo marka digital agertzeak lana lehiaketatik kanporatzea ekarriko du automatikoki.

Gainera, hautagaiaren datu pertsonalak zehazten dituen PDF formatuko fitxategi elektronikoa bat aurkeztuko da, geroago erabili ahal izateko, oinarri hauen II. eranskinaren arabera. Epaimahaiak ezin izango du hautagaiei buruzko informazio pertsonala eskuratu azken erabakia eman arte.

Artxiboa izendatzeko eredu honi jarraituko zaio: II. ERANSKINA-(izenordea jarri).pdf.

Adibidez: II. ERANSKINA-Jaiak.pdf.

II. eranskinaren bidez adierazitako datu pertsonalekin batera, bertan agertzen den zinpeko aitortpena ere bete behar da, deialdi hau arautzen duten baldintzak onartzeko, dossierrean aurkeztutako lanen originaltasuna eta egiletza berresteko eta berariazko baimena emateko Vitoria-Gasteizko Udalak datu pertsonalak sari hau kudeatzeko erabil ditzan.

II. eranskina zinpeko aitortpena bete gabe bidaltzen duena lehiaketatik kanpo geratuko da automatikoki.

Oinarri hauetan deskribatutako datu-ereduaren arabera bidaltzen ez diren proposamenak prozesutik kanpo geratuko dira.

b) Bigarren fasea. Bost hautagaitza aukeratzea.

Prozesuaren bigarren fasean, epaimahai profesional batek bost finalista aukeratuko ditu aurkeztutako hautagaitza guztien artean. Hautatutako 5 pertsonetako bakoitzak kartel bat egingo du. Kartela amaituta aurkeztu beharko da.

Kartelean testu hau agertu beharko da (euskara lehentasunezko lekuan jarrita):

VITORIA-GASTEIZ

Jaiak, Andre Maria Zuriaren Ohoretan

Fiestas en Honor de la Virgen Blanca

Eredu hauetako bat baliatuz jarri beharko dira datak:

A eredia

2025eko abuztuaren 4tik 9ra

Del 4 al 9 de agosto de 2025

B eredia

2025

Abuztuak 4-9 Agosto

Erakunde-marka ofizioz sartuko da kartelaren erreprodukzioan.

Lan finalistek argitaratu gabeak izan beharko dute, lehendik inongo beste lehiaketatan saritu gabeak, eta hautagaiek berek eginak.

Oinarri hauetan ezarritako epean kartela entregatzen duten finalistei 500,00 euroko zuzkidura emango zaie, eta dagokion atxikipena ezarriko zaio horri. Kartela epe barruan ez entregatzeak besterik gabe deialdi honetatik kanpo uztea ekarriko du, baita aipatutako zuzkidura ekonomikoa kobratzeko eskubidea galtzea ere.

c) Hirugarren fasea. Epaimahaiaren eztabaida eta epaia.

Finalista gertatu direnek aurkeztutako bost kartelak azken fasera igaroko dira, hau da, epaimahaiaren baloraziora; epaimahaiak kartel irabazle bakarra aukeratuko du.

Proposamen finalista horiek gehienez 10 megabyteko PDF formatuan bidaliko dira, helbide elektronikoa honetara: infocultura@vitoria-gasteiz.org.

Kartel bukatua jendaurrean aurkeztuko da, eta hedabideetan behar bezala promozionatu eta zabalduko.

Hautatutako pertsonak PDF formatuan aurkeztu beharko dute kartela, hazbeteko 300 puntuko bereizmenarekin eta 50 x 70 zentimetroko neurriarekin; hautagaitza aurkezteko aukeratutako izenordea mantenduko da, eta ez du identifikatzeko marka eta sinadurarik eramango. Betekizun hori betetzen ez bada, lana kanporatu egingo da automatikoki.

Irabazleak 2.000,00 euroko saria jasoko du kartelaren truke, eta dagokion atxikipena ezarriko zaio horri. Zenbateko hori bateragarria da finalista izateagatik lortutako 500,00 euroko zuzkidurarekin, eta horri gehituko zaio. Beraz, irabazleak 2.500,00 euroko ordainketa bakarria lortuko du, eta dagokion atxikipena ezarriko zaio horri.

Irabazleak inprimategirako formatuan eta formatu digitalean aurkeztu beharko du kartel irabazlea, betiere 50x70 zentimetroko neurriarekin, eta inprimategiko sistemen bidez erreproduzitzeko besteko bereizmena duelarik.

CMYK artxiboa izanez gero, 300 dpi-ko bereizmena eduki beharko du, eta artxiboa izendatzeko eredu honi jarraituko zaio: (hautagaiaren izena) _INPRIMATZEKO.

Adibidez: González Fernández_INPRIMATZEKO.

Gainera, euskarri digitalerako RGB fitxategi bat bidali beharko du, artxiboa izendatzeko eredu honi jarraituz: (hautagaiaren izena) _PANTAILA.

Adibidez: González Fernández_PANTAILA.

Kolorean aldaketarik egon ez dadin eskatzen dira bi bertsioak.

Irabazleak kartela erabiltzeko eskubideak lagako ditu, baita kartelaren zatiak edo kartelaren barruko irudiak erabiltzekoak ere, Vitoria-Gasteizko Udalak baliatu ditzan. Saritutako lana erabiltzeko eta ustiatzeko eskubideen lagapen hori edozein formatutan eta edozein bitartekoren bidez zabaltzeko erabili ahalko da.

Bosgarrena. Epaimahai kalifikatzailea

Epaimahai kalifikatzailea gaitasun profesionalaren eta esperientziaren irizpideen arabera hautatuko da. Haren epaia dagokion plika irekiz jakinaraziko da.

Seigarrena. Balorazio irizpideak

Epaimahaiak, fase guztietan, egokitzat jotzen dituen eta lana egiteko ezaugarri onenak dituzten hautagaiak aukeratuko ditu, betiere kalitate-, originaltasun- eta sormen-irizpideei jarraituz, eta aurkeztutako lanen komunikazio-ahalmena baloratuz.

Epaimahaiak eman gabe utzi ahalko du saria.

Hautagaitza finalistak aukeratzeko, epaimahaiko kide bakoitzak honela emango du botoa: lehen finalista aukeratuko du (3 puntu), bigarren finalista (2 puntu) eta hirugarren finalista (puntu 1). Puntu guztiak batuko dira, eta hortik aukeratuko dira 5 proposamen finalistak.

Kartel irabazlea aukeratzeko, epaimahaikide bakoitzak honela emango du botoa: lehenengo irabazlea aukeratuko du (3 puntu), bigarren irabazlea (2 puntu), eta hirugarren irabazlea (puntu 1). Puntu gehien jasotzen dituen izango da irabazlea.

Ezingo da epaimahaiak hartutako erabakiaren kontra jo. Eztabaidan gertatzen diren gorabeherak argitzeko esku izango du epaimahaiak.

Kartela argitaratu gabea izan beharko da, aurretik beste ezein lehiaketatan saririk jaso gabea eta hautagaiak berak egindakoa. Berariaz debekatzen da adimen artifiziala (AA) erabiltzea.

Zazpigarrena. Deialdiaren fase bakoitzerako epeak

Lehenengo fasean hautagaitzak DOSIER bidez aurkezteko epea: iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik 2025eko maiatzaren 9ko 13:00ak arte.

Kultura Zerbitzuak hautatutako bost hautagaitzei jakinaraztea: 2025eko maiatzaren 23an.

Hautatutako bost pertsonen kartela bidaltzeko azken eguna: 2025eko ekainaren 8ko 23:59an.

Kultura Zerbitzuak irabazleari jakinaraztea: 2025eko ekainaren 17an.

Zortzigarrena. Oinarri hauek onartzea

Lehiaketan parte hartzen duten pertsonen bertan adierazitako baldintza guztiak onartu beharko dituzte, eta horien mendean jarri.

Kultura Zerbitzuak eta ez bestek izango du eskumena deialdia dela eta sortzen diren zalantzak argitzeko.

Irabazlea izango da bere egile-eskubideengatik sor daitekeen edozein eztabaidaren legezko erantzule bakarra.

Bederatzigarrena. Ustiapen eskubideak

Saria ordaintzearekin batera, irabazleak kartela erabiltzeko eskubideak lagako ditu, baita kartelaren zatiak edo kartelaren barruko irudiak erabiltzekoak ere, Vitoria-Gasteizko Udalak baliatu ditzan. Udalak askatasunez ustiatu ahalko du saritutako lana, hala nola erreproduzitzen, banatuz, zabalduz edo aldatuz, baita sare digitalen bidez emititzen, transmititzen eta eskura jarrituz ere, Jabetza Intelektualaren Legearen testu bateginaren 26. artikuluan adierazitako epean. Era berean, Vitoria-Gasteizko Udalak edozein komertzializazio-euskarritan erreproduzitu ahalko du kartela, dela zuzenean, dela hirugarren bati ustiapen hori baimenduz.

Hamargarrena. Errekurtsoak

Oinarriak eta haien ondorio diren administrazio egintza oro aurkaratzea izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean adierazitako kasuetan eta moduan.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko martxoaren 15ean

Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkaria
SONIA DÍAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

"2025eko Andre Maria Zuriaren Jaietako" kartel lehiaketa
Concurso de carteles "Fiestas de la Virgen Blanca de Vitoria-Gasteiz 2025"

Kultura Zerbitzua
Servicio de Cultura

Kartelaren lehiaketa Vitoria-Gasteizko Andre Maria Zuriaren Jaiak

*Concurso de cartel
Fiestas de la Virgen Blanca
de Vitoria-Gasteiz*

2025

Dosier

I. Eranskina - Anexo I


EZINENA - SEUDÓNIMO



www.vitoria-gasteiz.org

"2025eko Andre Maria Zuriaren Jaietako" kartel lehiaketa
Concurso de carteles "Fiestas de la Virgen Blanca de Vitoria-Gasteiz 2025"

Kultura Zerbitzua
Servicio de Cultura






Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

"2025eko Andre Maria Zuriaren Jaietako" kartel lehiaketa
Concurso de carteles "Fiestas de la Virgen Blanca de Vitoria-Gasteiz 2025"

Kultura Zerbitzua
Servicio de Cultura






Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

"2025eko Andre Maria Zuriaren Jaietako" kartel lehiaketa
Concurso de carteles "Fiestas de la Virgen Blanca de Vitoria-Gasteiz 2025"

Kultura Zerbitzua
Servicio de Cultura






Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

"2025eko Andre Maria Zuriaren Jaietako" kartel lehiaketa
Concurso de carteles "Fiestas de la Virgen Blanca de Vitoria-Gasteiz 2025"

Kultura Zerbitzua
Servicio de Cultura






Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

"2025eko Andre Maria Zuriaren Jaietako" kartel lehiaketa
Concurso de carteles "Fiestas de la Virgen Blanca de Vitoria-Gasteiz 2025"

Kultura Zerbitzua
Servicio de Cultura





Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

"2025eko Andre Maria Zuriaren Jaietako" kartel lehiaketa
Concurso de carteles "Fiestas de la Virgen Blanca de Vitoria-Gasteiz 2025"

Kultura Zerbitzua
Servicio de Cultura

II. ERANSKINA – ANEXO II

EZINENA – SEUDÓNIMO (*)

(*) Derrigorrezko datuak - Datos obligatorios

DATU PERTSONALAK – DATOS PERSONALES

Izena – Nombre (*)

1. abizena – Apellido 1 (*)

2. abizena – Apellido 2

Identifikazio-agiri-mota – Tipo de documento identificativo

Identifikazio zk. – N.º identificativo (*)

Adina – Edad

Sexua – Sexo

Emakume – Mujer

Gizon - Hombre

Ez binarioa – No binario

Helbidea – Domicilio (*)

PK – CP (*)

Herria – Localidad (*)

Lurraldea – Provincia (*)

Posta elektronikoa – Correo electrónico (*)

Telefono mugikorra – Teléfono móvil (*)

Beste telefono bat – Otro teléfono

(*) Derrigorrezko datuak - Datos obligatorios

ZINPEKO DEKLARAZIOA: – DECLARACIÓN JURADA:

- Honen bidez, I. Dosier eranskinean aurkeztutako lanen originaltasuna eta egiletasuna adierazten dut.
Por la presente, declaro la originalidad y autoría de los trabajos presentados en el Anexo I Dosier.
- Lehiaketan adierazitako baldintzak onartzen ditut.
Acepto las condiciones que regulan esta convocatoria.
- Berariaz baimena ematen dut nire datu pertsonalak Gasteizko Udalak trata ditzan, baldin eta sari hau kudeatzeko helburuz bada.
Manifiesto mi consentimiento expreso para que el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz trate mis datos personales para la finalidad de gestionar este premio.

DATA ETA SINADURA - FECHA Y FIRMA (*)

Gasteizen, (e)ko (a)ren (e)an En Vitoria-Gasteiz, a de de

Sinadura – Firma

(*)

Inprimakia sinatu aurretik, hurrengo orrialdean agertzen den datuen babesari buruzko informazioa irakurri beharko duzu.

Antes de firmar el formulario, debe leer la información básica sobre protección de datos que se presenta en la página siguiente.



www.vitoria-gasteiz.org

"2025eko Andre Maria Zuriaren Jaietako" kartel lehiaketa
 Concurso de carteles "Fiestas de la Virgen Blanca de Vitoria-Gasteiz 2025"

Kultura Zerbitzua
 Servicio de Cultura

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala - Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK- CIF: P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Alava 945 161 616 - informacion@vitoria-gasteiz.org - www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkariaren kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	Udal zerbitzuei dagokienez herritarren eskakizunak artatzea, eta udal-eskumeneko prozedurak izapidetzea, 39/2015 legean aurreikusitakoarekin bat etorrira. <i>Atender las solicitudes de la ciudadanía en relación con los distintos servicios municipales, así como la tramitación de los distintos procedimientos de competencia municipal, de acuerdo con lo previsto en la ley 39/2015.</i>
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	39/2015 Legearen 21.1 artikulua: <i>Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jaki-naraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua.</i> DBAOko 6.1.c) artikulua: <i>Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko.</i> <i>Artículo 21.1 Ley 39/2015: La administración está obligada a dictar resolución expresa y a notificarla en todos los procedimientos cualquiera que sea su forma de iniciación.</i> <i>Artículo 6.1.c) RGPD: El tratamiento es necesario para el cumplimiento de una obligación legal aplicable al responsable del tratamiento.</i>
Hartzaileak <i>Destinatarios</i>	Datu pertsonalik ez zaie lagako hirugarrenei. <i>Los datos personales no serán cedidos a terceros.</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraugi bitartean. Horrez gain, gorde egingo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erraklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak irau bitartean. Orobat, artxibetegi eta dokumentazioari buruzko araudian xedetutakoa aplikatuko zaie datuei. <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>